



## **GOIENA TELEBISTAKO ÕKULTURRIZKETAKÖ SAIOAREN LANTALDEAK IRABAZI DU AURTENGO RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA**

**Iñigo Astiz eta Maite Mutuberriak jaso dute epaimahaiaren sari berezia, ÕKixoteneanö erreportaje liburuagatik**

**Bi Aipamen berezi egin dira: ÕEgunaö egunkaria eta ÕOrtzadarö asteroko gehigarria. Bizkaiko Foru Aldundiko Lorea Bilbao diputatuak jaso du Egunaren Aipamenaren agiria, eta Mikel Mujika kazetariak Ortzadarrena.**

Ezagutu eta banatu dira 2017ko Rikardo Arregi Kazetaritza Sariako sariak eta aipamenak. Andoainen, Bastero Kulturgunean izan da ekitaldia, uztailaren 8ko eguerdian. Bertan izan dira Andoaingo alkatea, Ana Carrere, Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendaria, Estibalitz Alkorta, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura diputatua, Lorea Bilbao, Andoaingo zinegotziak, Rikardo Arregi zenaren senitartekoak, epaimahaikideak eta saridunak. Dozenaka herritar eta komunikazioaren munduko euskaltzale bertaratu dira. Joxan Goikoetxea, Olatz Prat eta Josune Marinek modu hunkigarrian eta bikain interpretatutako kantu eta musikak gozatu du ekitaldia. Manu Etxezortu kazetariak aurkeztu eta gidatu du ekitaldi osoa, eta epaimahaiaren idazkari Patxi Baztarrikak azaldu du epaimahaiak hartutako Azken Erabakia. Epaimahaiak erabaki guztiak aho batez hartu ditu.

Rikardo Arregi Kazetaritza Saria Andoaingo Udalak sortu zuen duela hogeita bederatzi urte, eta harrezkero urterik urte, hutsik egin gabe, egin du deialdia, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntzaz. Euskal kazetaritzaren sari aitzindari eta dekanoa da Rikardo Arregi Kazetaritza Saria, eta bere helburua da euskarazko kazetaritzaren kalitatea, bikaintasuna eta berrikuntza bultzatzea. Horregatik, 2016ko maiatzetik 2017ko maiatza bitartean euskarazko kazetaritza edo komunikazioan euskarri, genero eta formatu ezberdinetan (idatzizkoan, digitalean, telebistan, irratan) kaleratu diren lanen artean eredugarritzat nabarmendutakoak saritzen ditu.

XXIX. edizioa da aurtengoa. Hogei kazetari eta komunikatzailearen lanak aurkeztu dira, guztira 87 lan ezberdin. Ia guztiak sari nagusira aurkeztu dira, eta oso gutxi Õkazetari berriaö atalera. Bi sari eta bi aipamen berezi izan dira aurtengoak. Sariak izan dira, Sari nagusia eta epaimahaiaren sari berezia. Aipamen bereziak, berriz, EGUNA euskarazko lehen egunkariari egindakoa eta Ortzadar astekari gehigarriari egindakoa.

Andoaingo alkate Ana Carrerek egin du ekitaldiko lehen mintzaldia. Bertaratuei eskerrak eta aurtengo saridunei zorionak eman ondoren, adierazi du, òRikardo Arregi Sariarekin, euskaraz lan egiteko eta euskaraz komunikatzeko egindako esfortzu eta hautua eskertu nahi ditu Andoaingo Udalakò. Rikardo Arregi gogoratu nahi izan du, eta nabarmendu du ògaraiko zailtasunen gainetik, helduen alfabetatzea eta euskara batuaren beharra ikusi zuen eta sustatzailea izan genuen Rikardo. Egungo komunikazio euskarri ezberdinak euskaraz sortzeko ezinbesteko tresnak bihurtu dira, hain zuzen, alfabetatzea eta euskara batuaò.

Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendari Estibalitz Alkortak hitza hartu du ekitaldia amaitzeko, eta saridunei zorionak ematearekin batera adierazi du òkazetaritza egitea berez zaila bada, zer esanik ez hizkuntza gutxitu batean egitea. Horregatik, sekulako meritua dauka zuen lanak, gaurko sarituek erakutsi diguzuen. Kazetaritza, euskaraz eta kalitate handikoa; maila handiko lanaò.

## **Sariak**

Sari nagusia irabazi du Goiena Telebistako òKulturriketakò izeneko elkarrizketa eta solasaldi saioaren lantaldeak. Eta Epaimahaiaren sari berezia irabazi dute Iñigo Astiz kazetariak eta Maite Mutuberria ilustratzaileak, òKixoteneanò erreportaje liburuagatik. òKulturriketakò telebista saioaren lantaldeak sari moduan jaso ditu 9.000 euro garbi, Xabier Lakaren eskultura eta agiri-diploma. Epaimahaiaren sari bereziaren irabazleek Xabier Lakaren serigrafia numeratu bana eta agiri-diploma jaso dituzte.

Goiena Telebistako òKulturriketakò elkarrizketa saioaren lantaldea (gidoia, errealizazioa, kamerak, soinua) osatzen dutenak dira: Eneko Azkarate, Txomin Madina, Monika Montero, Andoni Bodes, Mikel Ezkerro eta Jagoba Domingo. Goienako programazio buru Oihane Agirrek eta aipatutako lantaldeak jaso dute saria, Andoaingo alkate Ana Carrere eta Eusko Jaurlaritzako Estibalitz Alkortaren eskutik. Kultur sorkuntzaren gaineko saioa da òKulturriketakò. 2016an hasi zen Goiena saio hau ekoizten, òkazetaria - elkarrizketatuaò ohiko formatoan. Urte horretan hainbat disziplina kulturaletako sortzaile ugari ekarrizketatu zituzten. 2017an ohiko formatoa utzi eta saio bakoitzean kultur sorkuntzako diziplina ugaritako (musika, literatura, dantza, bertsogintza...) bi sortzaile jarri dituzte aurrez aurre, solasean: kultur disziplina berekoak batzuetan, eta disziplina ezberdinetakoak bestetzetan. Epaimahaiaren hitzetan, òRikardo Arregi Kazetaritza Sariak euskarazko kazetaritzan sustatu nahi dituen balioak erabat betetzen ditu Kulturriketak sioak: kalitatea, garaian garaiko beharrianetara egokitua izatea, modernotasuna, bikaintasuna, berrikuntza eta eredugarritasunaò.

òKixoteneanò erreportaje liburua, zeinak Epaimahaiaren sari berezia irabazi baitu, bi ikuspegiren sorkuntza da: kazetariaren (Iñigo Astiz) eta ilustratzailearen (Maite Mutuberria) ikuspegiak bat egin izanaren emaitza da. Cervantesen heriotzaren 400 urte betetzearen harian, Mantxara egindako bidaia tarteko, Berria egunkarirako idatzitako artikulua sorta batek osatzen du saritutako liburuaren bizkarrezurra, baina saritutako liburuak baditu artikulua haiez gain beste elementu batzuk ere, eta kronikak ere zuzendu, moldatu eta aberastuta daude saritutako liburuan, òKixoteneanò liburuan alegia, non fikzioa eta errealitatea etengabe elkar gurutzatzen diren. Epaimahaiaren hitzetan, òsorkuntza paregabea da Kixotenean. Irakurterraza eta oso goi mailakoa, aldi

berean. Eredugarriaö. Iñigo Astiz eta Maite Mutuberriak biek jaso dute saria, Ainara Rodríguez Andoaingo Euskara zinegotzi eta epaimahaiburuak, eta Goio Arana, Maria González Gorosarri eta Goizalde Landabaso epaimahaikideek emanda.

Aurtengo edizioan hutsik geratu da 27 urtez azpikoentzako deitzen den ökazetari berriaö ataleko saria. Epaimahaiak adierazi du ökalitatezko lanak gero eta gehiago dira 27 urtez azpiko gazteen sorkuntzan, eta Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren erronka da datozen urteetan lan ugari horien neurriko lanak jasotzeaö.

### **Aipamen bereziak**

Sariez gain, aipamen berezirik ere izan da aurtengoan: EGUNArena bata eta Ortzadarrena bestea. EGUNAREN sorreraren 80 urte bete dira aurtun, eta epaimahaiaren hitzetan, öaitormen berezia eta gu guztion esker ona ongi mereziak ditu *EGUNA* egunkariak (...) Beste batzuk lehenago erein eta gorpuztutakoaren gainean ari gara ekimen berrituak eta berriak hezurramitzen. Euskarazko kazetaritzaren ibilbidean badira mugarri batzuk. Mugarri horietan nabarmentzekoa eta goraiatzekoa da *EGUNA*. *EGUNA* da euskaraz egindako lehen egunkariaö. Ibilaldi laburra izan zuen, sei hilabete eskas besterik ez baitzuen iraun, garaiko jazarraldi faxistak jarraipena eragotzi zion arte: guztira 139 zenbaki. Bizkaiko Foru Aldundiak, zorionez, Euskal Herrian gure egunetara iritsia den Egunaren bilduma oso eta ezagun bakarra gorde du Bizkaiko Foru Liburutegian, aurrena ezinbestez öezkutuanö eta gero jendaurrean, nahi duen guztiaren eskura jarritz kontsultagai sarean. Horregatik eman zaio Bizkaiko Foru Liburutegia - Bizkaiko Foru Aldundiari EGUNAREN aipamenaren agiri-diploma. Foru Aldundiko Euskara eta Kultura diputatuak, Lorea Bilbaok, jaso du aipamen-agiria, Andoaingo Euskara zinegotzi eta epaimahaiburu Ainara Rodríguezen eskutik.

Lorea Bilbaok, EGUNARI egindako Aipamen berezia Andoaingo Udalari eta epaimahaiari eskertu ondoren, goraiatu zituen Bizkaiko Foru Liburutegian hamarkada hauetan guztietan, eta bereziki 1937 ondorengo lehen hamarraldietan Egunaren bilduma osoa gorde zutenak. Andoaingo Udala, bertako alkatea, Euskara zinegotzia eta Udalak egoki jotzen dituenak, eta epaimahaikideak gonbidatu zituen Bizkaiko Foru Liburutegian Egunaren Aipamen bereziaren agiri-diploma jendaurrean jartzera eta Egunaren bilduma ikustera.

Ortzadar astekari gehigarriaren aipamen berezia ere egin nahi izan du epaimahaiak. Izan ere, Ortzadarrek 20 urte bete ditu aurtun, eta 500 zenbakitik gora jarri ditu kalean, asterik aste. Noticias taldeak larunbatero banatzen duen gehigarria da. Epaimahaiak azpimarratu du, öuharte txikia izan da (Ortzadar), eta da, erdal hedabide batean, baina leku propioa irabazi du eta erabateko gaurkotasunez jakinarazi ditu euskarazko sortzaileen lanakö. Mikel Mujika Noticias taldeko kazetariak jaso du Ortzadarren izenan aipamen-agiria, Ainara Rodríguez epaimahaiburuaren eskutik. Mujikak eskertu du, hedabideentzako errazak ez izan arren 20 urtean hutsik egin gabe Ortzadarrekin egindako ahalegina, apala bada ere, kontuan hartu izana.

### **Epaimahaia**

XXIX. edizioko epaimahaia osatu dutenak ondorengoak dira: mahaikide izan dira komunikazio arloko adituak diren Goio Arana, Mondragon Unibertsitateko irakaslea, Maria Gonzalez Gorosarri, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea, Goizalde

Landabaso, kazetari eta idazlea, eta Xabier Landabidea, Deustuko Unibertsitateko irakaslea; eta mahaiburu eta idazkari lanetan aritu dira, hurrenez hurren, Ainara Rodríguez, Andoaingo Udaleko Euskara zinegotzia, eta Patxi Baztarrika, Euskara Zerbitzuaren arduraduna. Ekitaldian izan dira Goio Arana, Maria Gonzalez Gorosarri eta Goizalde Landabaso -arrazoi profesionalak medio, Xabier Landabideak ez du izan bertaraterik-, eta hirurek lerroburu bana egin dituzte, bata Aipamen bereziei buruz, eta beste biak sari biei buruz, komunikatzaile adituak direla agerian utziz.

Andoainen, 2017ko uztailaren 8an.